

Testua eta irudiak: **Anthony Browne**

Itzulpena: Manu López Gaseni

Bilduma: **Album irudidunak. Gaur egungo klasikoak**

Gaiak: adiskidetasuna, estimua, enpatia, elkartasuna, zaintzak. Emozioak: bakardadea, tristezia, amorrua, maitasuna... Aniztasuna. Zeinu-hizkuntza, komunikazioa. Animalien ipuinak, gorilak, katuak

IBIC: YBC (Album irudidunak)

Azal gogorra | 26 x 30 cm | 32 or. | Salneurria: 16,00 €

ISBN: 978-84-9172-384-4

HIZKUNTZA HAUETAN ERE: Gaztelaniaz | Galegoz | Katalanez | Portugesez

ISBN: 978-84-9172-384-4



+3

Anthony Browne-ren obra ezinbestekoetarik bat, album samur bat, umorez zipriztindua, adiskidetasunaren eta elkartasunaren balioaz.

1974an, Kokok, zeinu-hizkuntza erabiltzeko Stanford Unibertsitatean trebatutako gorila batek, begira zituen zientzialariei katu bat eskatu zien, eta bere kumea balitz bezala zaindu zuen. Handik hilabete batzuetara, katu desagertu egin zen eta egun batzuetan zehar Kokok bere tristezia adierazi zuen zeinu bidez. Gertaera hori, beste espezieek giza emozioak sentitzeko gai ote diren eztabaida piztu baitzuen, inspirazio-iturri izan zitzaion Anthony Browneri bere obra ezagunenetariko bat sortzeko.

«Eder txikia» liburuan, benetako kasuan bezala, zeinu-hizkuntzan mintzatzen dakien eta nahi duen guztia daukan gorila bat bakarrik sentitzen da eta lagun bat eskatzen die bere zaintzaileei. Halaxe ezagutu zuen Eder katemea, zeinarekin esnea eta ezta hartu, paseatu, jolasten den... Zorionsuak dira elkarren ondoan, harik eta, gau batean, film bat ikusten ari direla, gorila oso urduri, sutan jartzen den arte. Orduan, haren zaintzaileek biak banatzea erabakitzen dute. Une horretan, Ederrek gorilari begiratu eta adiskidetasunaren benetako balioa erakusten dio.


Anthony Brownek izugarri maite ditu gorilak, haien indarraren eta samurtasunaren arteko kontrastearen ondorioz, eta lilura hori egilearen lan askotan islatzen da. Album honetako ilustrazio koloretsuetan, fantasia eta umore ukitua dute osagai errealistek, bi pertsonaia maitagarri hauei bizia emateko.

Anthony Browne

Leeds College of Art delakoan graduaturik, diseinu grafikoa espezializatu zen. Medikuntzako gaiak marrazten hasi zen Manchesterreko ospitale batean, eta gero haurrentzako ilustrazioak sortzera bideratu zuen bere zeregina. Bere ibilbidean jaso dituen sari aipagarrienak dira Kate Greenaway domina, Kurt Maschler saria, Children's Laureate 2009 domina eta Hans Christian Andersen saria, 2000. urtean bere obra osoari emandakoa. Itzal handieneko egile ingelesetariko bat da, batez ere irakurtzeko, begiratzeko eta lengoia plastikoarekin erlazionatzeko bide berriak zabaltzeko ahaleginagatik. Haren lanak kultur eta arte erreferentziaz betetako unibertsoa sortu du, edozein adinetako irakurleak testua osatzeko eta interpretatzeko duen adimena probatzen duten ikus-arrasto eta giltzarri ugari erabiltzen baitu.

<http://www.anthonybrownebooks.com>

Egilearen beste liburu batzuk:




16,00 €

ISBN-13: 978-84-9172-325-7



16,00 €

ISBN-13: 978-84-7681-716-2



16,00 €

ISBN-13: 978-84-9172-209-0



Eder Txikia

Bazen behin gorila oso berezi bat,
zeinu-hizkuntzaz baliatzen ikasi zuena.
Zerbait nahi bazuen,
gai zen bere zaintzaileei eskatzeko,
eskuez egindako zeinuak erabiliz.
Bere behar guztiak
aserik zituela zirudien.



Hala ere, **triste** zegoen.



Egun batean, zera adierazi zien zaintzaileei:



"Nik...

nahi dut..."



lagun bat".

Zooan
ez zegoen
beste gorilarik, eta
zaintzaileek ez zekiten zer egin.
Orduan haletako batek
ideia bat izan zuen.

